

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Debadio politiko antzuak?



Amaia Alvarez Uribe

Itxaro Bordak argitaratu duen lehen antzezlan da *Odolak su gabe diraki* eta “euskal gatazka” da jorratzen duen gaia, ausarki, amorruez, zuzen, gordin. Senideen arteko loturari egiten dio erreferentzia izenbururako aukeratutako esaera zaharrak; ezagunarekiko joerari eta aldatzeko zailtasunei; maite duzunarekiko pasioari.

Normalean jendeak argi hitz egiten du bere kideekin elkartzen denean kalean, tabernan edo plazan, eta horiek dira hain zuzen egileak aukeratu eta paperera ekarri dituen lekuak. Horretarako antzerkira jo du, bertsolaritzarekin batera ahozkotik, bat-batekotik, pertsonen arteko hurbiltasun eta elkarrengaitik gertu dagoen genero literarioa.

Deserosoa, desatsegina da tarteka irakurketa, gai tabu edo tentuz ibiltzekoa baita hau, garai berriak izan arren gatazkak bizirik dirauelako, baina ahoan bilorik gabe mintzo dira pertsonaiak orriotan. Besteak beste hurrengoak irakur dezakegu: “Sobera mintzo zara: euskaldun zintzoak kasu egiten du zer erraten duen... nola erraten duen... norekin erraten duen... nori erraten dion...”.

Bere aurreko lanetan egiten duena egiten du hemen ere: euskal nortasuna, euskalduntasuna, euskal nazioa gaurko markora ekarri eta berreraiki. Baina orain arte ez bezala, diskurtso hegemonikoa(goa)k elkarren aurrean ipintzen ditu (aurreko lanetan mugatik eta periferietatik begiratu diolako euskal izaerari eta oraingoan euskal

Odolak su gabe diraki

ITXARO BORDA

Maiatz, 2017



komunitateko guneetako ahotsei eman die bozgorailua).

Antzerkiak horretarako aukera ederra eman dio, protagonistak elkarrekin hizketan ipintzekoa, elkarren alde eta elkarren kontra abertzale(ohi)ak, preso(ohi)ak, politikariak... Horrela, errelatoa edo kontakizuna deitzen diogun hori osatzeko egungo lanean bere alea ipini du.

Izan ere, gure historia hurbilaren parte izan garenoi gure bizipenen berri eman dezagun eskatzen digu zeharka. Pertsonala politikoa delako, “diskurtso fosilduak” gainditu behar ditugulako, mikro-historiek ere osatzen dutelako errealitatea edo egia.

Agian generoarekin egiten ari garen moduan nazioarekin ere geure burua deseraiki eta ikuspegi kritiko begiratzeko aprobetxatu ahal dugu lan hau; urteetako inertiak apurtzeko; barruko “euskal” zapaltzailea eta “euskal” zapaldua hizketan jartzeko. ■



Itxaro Borda Xarriton idazlea
(Baiona-Oragarre, 1959).